

**LIBURUAK**

**Izenburuak:** ‘Handia naiz, amatxo!’, ‘Buruarinen harrapakina’ eta ‘Hesiak gáindituz’.

**Egileak:** Thierry Lenain, Alfredo Gomez eta Pere J. Carbo, hurrenez hurren. **Marrazkiak:**

Laurence de Kemmeter, Sara Rojo eta Adria Fruitos, hurrenez hurren.

**Itzulpenak:** Miren Agur Meabe, Patxi Ezkiaga eta Idoia Arruti, hurrenez hurren.

**Argitaletxea:** Ibaizabal.



Gaztetxoak oporretan daude orain, eta denbora gehiago dute irakurtzeko eta irakurketa lantzeko.

Hala, jarduera dibertigarri bezetarikoa koadernoan argitaratu dugu, liburuarekin batera. Irakurzaletasuna eta sormena bultzatzea da helburu nagusia. Irakurketa bera oso garrantzitsua da, baina, era berean, oso garrantzitsua da irakurtzen dugun hori ulertzea eta jasotzea. Liburuarekin batera argitaratzen ditugun jarduera horien bidez horixe lortu nahi dugu: irakurleek arretaz irakurtzea istorioa eta irakurtzen duten hori gogoran hartzea eta jasotzea. Azken batean, irakurtzen ikastea nahi dugu.

**Zein jarduera mota dira?**

Askotariko jarduerak daude, eta hiru multzotan daude sailkatuak: liburua irakurtzen hasi aurretik lantzeko, irakurtzen dugun bitartean egiteko eta behin liburua amaitu ostean egiteko. Lehen eta azken multzoko ariketa sortak sormena eta irudimena lantzeko eta iritzia emateko dira, bereziki; eta irakurtzen diren bitartean egiteko jarduerak, berriz, liburuaren edukiarekin lotuak daude. Oro har, baina, ariketa dibertigarriak dira: hizki saldak, ordenatu ekintzak edo irudiak, marrazki bat egin, aukeratu esaldi zuzena, gurutzegramak...

**Ariketak ez dira derrigorrean egin behar.**

Ez, ez, istorioaren osagarri dira koadernoko ariketak. Nork bere kabuz eta borondatez egiteko jarduerak dira. Ez dezala inork pentsa ariketa astunak direnik, oso dibertigarriak, jostagarriak, entretenigarriak eta arin egitekoak baitira. Ariketa laburrak dira, eta irakurtzeko prozesuan irakurri dutena ulertzeko laguntza txiki bat baino ez dira. Azken batean, denbora pasatzeko liburuxkak dira jarduera koadernoak.

**Eukene Herrera**

IBAIZABAL ARGITALETXEKO LITERATURA SAILEKO ARDURADUNA

«Denbora pasatzeko liburuxkak dira jarduera koadernoak»

Oporretan beti izaten da gauzak egiteko denbora gehiago: jolasteko, lagunekin egoteko, eguraldi onaz gozatzeko... Baita gogoko ditugun liburuak irakurtzeko ere. Ibaizabal argitaletxeak hiru liburu dibertigarri proposatzen dizkizue, liburuaz gozatu eta literatura lantzeko: *Handia naiz, amatxo!*, *Buruarinen harrapakina* eta *Hesiak gáindituz*. Jardueraz beteriko koadernoak dakartza liburu bakoitzak, irakurtzen dugun bitartean lantzeko. Liburuak eta literatura ongi pasatzeko jolas polita direla ikusiko duzue.

**Udan ongi pasatzeko eta literatura lantzeko hiru liburu atera dituzue.**

Paper txoriak bilduma adinaren arabera sailkatua dago: sail gorria, 6-8 urte bitarteko haurrentzako da; sail urdina, 8-10 urte bitarteko entzat, eta sail berdea, 10-12 urte artekoentzat. Orain arte, kolore bakoitzeko launa liburu argitaratuak genituen, eta, orain, udarako, kolore bakoitzeko izenburu bana argitaratu dugu. *Handia naiz, amatxo!* liburuak sail gorrikoa da, eta lehen aldiz lagunaren etxera lo egitera doan neskatila baten istorioa kontatzen da. Sail urdineko liburu-

ruan, Liskarti pirata txoriburuaren gorabeherak kontatzen dira. Hainbat hilabetez itsasoan nabigatzen eman ostean, harrapakina galduta itzuli da etxera Liskarti. Eta, azkenik, *Hesiak gáindituz* liburuak Roberto gaztearen buruhausteez eta arazoez ari da.

**Nolako istorioak dira?**

Aixa alaba kanpora doala eta ama baten kezka da lehen liburuan muina. Nahiko istorio umoretsua da. Pirataren abenturan ere umore eta abentura nagusi dira, eta, azken liburua, berriz, zertxobait serioagoa da. Nerabezaroan gazteek izan ohi dituzten kezkei buruzko istorioa da. Asteburu berezi bat igaroko du protagonistak, eta orduan ohartuko da egoera zaila aurre egiteko gauza dela. Oso bestelako istorioak kontatzen dira, baina hirurak oso mezu baikorrak helarazten dituzte. Hiruretan, gainera, askotariko balioak lantzeko aukera ematen dute istorioek: adiskidetasuna, maitasuna, bestearekiko errespetua... Irakur-

tzeko, hausnartzeko eta pentsatzeko materiala eman nahi diegu irakurleei.

**Liburuarekin batera, literatura lantzeko jardueren koadernoak argitaratu dituzue. Zein da helburua?**

